

Talaia - Itsasbazterra

MAILA
2

ERRAZA

PASAIATIK DONOSTIARA



Donostia – San Sebastián

Etapa labur baina paisaia mota anitzekoa...Platako itsasargitik Pasaia behean ikus daiteke, amildegi gaitzen pean; itsasoaren gainean den balkoi zuhaitzez estalia, aldiz, pasaia bukolikoa duzue; zirrarez zirrara ibiliko zarete, Uliako labarretarainoko bide osoan, gero Donostiako badiaren ikuskizun magikoarekin amaitzeko...

Abiapuntura heltzeko :

Espainiara heldutakoan, Irun pasa eta A8 autobideari jarraitu; Erreterian jalgi (3. irteera). Eskuinetara, Madril-Irun GI1636 errepidea hartu, Lezorantz, gero eskuin, Jaizkibel etorbidea, Lezo eskuinetik bazter utziz (GI3440). Ezker hartu, Pasai-Donibanera. Aparkatzeko, bada Pasaiaaren sarreran aparkaleku bat, badiaren eskuineko hegian.

Itzultzeko :

Autobus edo topo (eskualdeko tren) edo taxia Donostiatik Pasaia.

Pasaia badiaren eskuiin hegitik (herriko etxea), ikus daiteke badiaren ezker hegira eramaten duen txalupa (Casa Mirones jatetxearen azpian). Sanpedroko beste alde hartan da Itsas Kulturaren Zentroa (5' zeharkatzea eta 0'6€ pertsonako). Kaira iritsi eta eskuinetara, ur ertzetik, bikeztaturiko errepide xume bati jarraitu; errepidea amaitutakoan, bikeztaturiko bide bat da (12', 0,9km). Labarrean zizelkatu eskalera piko batzuetan, sigi-saga, hamar bihurgunetan gora egin eta errepide batera heldu.


0h25 ① Errepidea, (1,3km). Eskuin aldera hartu, Plata itsasargira jaisten den errepidea. Errepidea amaitzen den tokian, ezkerretik jarraitu, xendra lau batetan. Behe-ibar eder bat (thalweg) pasa (eskuin aldean, behialako ubidea, piknikatzeko mahaia eta iturria). Lauan jarraitu, bigarren behe-ibar bat pasa (arku ederrak dituen behialako ubidea), eta bide kakolako balkoi batean aitzin eginez, xendra bidegurutze batera heldu.

1h10 ② Bidegurutzea, (3,5km). Ezkerretan utzi Donejakue bidea eta erabat eskuin aldera hartu, Donostiarantz. Handik hamar metrotara, eskuinetik jarraitu, pinudi batetan behera doan bide zabal batetan. Hiruzpalau minuturen buruan, eskuinean, horiz seinalaturiko eta « itsasbazterra » izenez idatzirik xendra bazter utzi bi aldiz eta zuzen-zuzen doan bide nagusiari jarraitu, hasieran beheraka eta gero zer edo zer igoz. Mendate txiki batera heldu, betoizko maldaxka batera.

1h20 ③ Mendatea, betoizko maldaxka, 120m, 1h20, 4,4km. Zertxobait gora doan xendra batek mozten du alderik alde,

betoizko maldaxka hori ; xendrarri jarraitu ; gero zuzen segi, zabalago den bide batetik. Euskal Itsasbazterraren azalpenak eskaintzen dituen argibide taula batera iritsi ; bidegurutze bat dago : eskuinetik, behera hartu, Donostiarantz (1h45; 5,1km), orain zuri-gorri eta berde-gorri seinalaturiko xendra batean...ur gaineko balkoi batetik. Xendrak ezkerretara bihurgune handi bat marratzen duen lekuan, Uliako labarren bistalekua dago, itsasoaren gainean, 200 metrotara. Gora jarraitu, momentuz zolazaturik den bide batetik, bihurgune bat eskuin eta basotik atera eta itsasoan arront sarturik den lurmutur baten ikusmira ederra agertuko zaizue (kaskoaren gainean, gotorleku txiki baten hondakinak). Xendren bidegurutze batera iritsi : ④ Xendren bidegurutzea (6,3km). Zuzen-zuzen jarraitu, basoan sartzen den xendra nagusian, behe-ibar txiki bat pasa eta beste bidegurutze batera iritsitakoan, eskuin jaisten den pista nagusia hartu. Bihurgune bat hartu ezkerretara eta ateratzerakoan, Donostiako hondartza handia agertuko da, hor bertan, eskuin aldetik. Pista zuzen-zuzen doa behera, orain bikeztaturiko errepide txiki bihurturik ; ezkerretara utzi errepidea, eskuinean ageri den betoizko maldaxka bati jarraituz ; eskalera batzuk datoz gero eta haietatik Zemoia kalera irten ; karrika hori jaitzi, semaforo batera iritsi arte. Eskuin hartu eta Nafarroako etorbidea ibiliz, itsas hegira atera. Ezkerretarantz jarraitu, Kursaalera... Donostia, (7,9km).



 Pasaia - Udaletxe

 3h

 8km

 300m

Bide seinaleak :  GR121aren zuri-gorria.

Egin edota ikusi beharrekoa :

- Pasaia badiaren gainera heltzeko, harrian zizelkaturiko eskalera bikaina igo.
- Itsasoaren gaineko ikusmirak.
- Uliako labarrak.
- Oso eraikin gutxi duen kostaldea.
- Donostiako badia eta hondartzara heltzea.

Victor Hugoren etxea.

Pasaia Turismo Bulegoa Victor Hugoren Etxean dago, frantses literaturaren idazle erraldoia Pasaian izan zenean bizi zen etxean, hain zuzen; gaur egun, idazle handi haren gaineko museo bitxi bat da bertan. Bisitariak, bertan, Pasaia gaineko, baina baita Oarsoaldea eskualdea osatzen duten gainerako herrien (Errenteria, Lezo eta Oiartzun) gaineko turismo informazio guztiak atzeman ditzake.



Pasaia



Donostia - San Sebastián

Informazio osagarriak, honako leku hauetan :

- Pasaia Turismo Bulegoa
Tel : 00 34 943 341 556 - www.victorhugopasaia.net
- Donostiako Turismo Bulegoa
Tel : 00 34 943 48 11 66 - www.sansebastianturismo.com

Milesker egileari : Bruno Marin – Randonades.